

GAZTE SARITU BATI ALKARRIZKETA

Teresa Leisieuxkoaren heriotzaren mendeurrenean hainbat gauza egin ditugu Larrean beraren omenez. Besteak beste, berri buruzko txapelketa gazteen artean. Irabazlea Karlos Olabarri izan da. Zuzenbide zubileko ikasketak egiten ari da Deustuko Unibertsitatean. Bigarrena Iratxe Uriarte geratu da. Honek orain bi urte amaitu ebazan enpresa ikasketak. Eta hirugarrena Itxaso Iriondo izan dogu. Hau be, Unibertsitatean dabil ikasten. Hirurak Zornotzako gazte jatorrak ditugu.



Karlos bere guraso ta anaiekin



Karlos antzerki baten partaide

Aspalditik nenbilen irabazleagaz alkarrizketa izateko asmo bizian. Eta gabonetan txeratsu eta ondo hartu nindun. Ez deust inondiko trabarik jarri hizketan egiteko. Aldrebes, oso prest edozeri erantzuteko.

Andoni.- Noiztik ezagutzen dozu Teresa Lisieuxkoa?

Karlos.- Sakontasunez, aurtan. Ez nekian ia bere izena besterik.

A.- Teresa Lisieuxkoaren libururik irakurri dozu?

K.- Bai. "Arima baten Historia" osorik, erderaz eta euskeraz. Olerki eta karta batzuk be bai. Eta bere "Azken alkarrizketak" osorik.

A.- Eta berari buruzko libururik?

K.- Bai. A. Olearen "Creer amando", Maxence van der Meersch-en "Santa Teresa de Lisieux" liburu sonatua ta Ismael Be-goetxearen "Genialidades y sorpresas" liburu bitxia.

A.- Txapelketa 90 itaunetik, zein izan jatzu gatxena asmatzeko?

K.- "Dan-dana da grazia".

A.- Teresaren zein pentsamentu jatzu atseginena?

K.- Niretzako danak dira bata baino bestea ederragoak.

A.- Undan, Lisieuxen izan zinan, ta gauzarik hunkigarriena?

K.- Beste hainbat gaztekin, mundu guztitik etorritakoeekin, Teresaren inguruan alkartzea.

A.- Eta besterik?

K.- "Les Buissonnets" deritxon bere etxea ta bere hilobia.

A.- Zer da Teresaren bizitzan gehien azpimarratzen dozuna?

K.- Gazte gaztetatik Jesukristori kondizio barik heriotzarano jarraitzea.

A.- Zer da Unibertsitatean aurkitu dozuna?

K.- Iritzi-aniztasuna.

A.- Zein da ikasleen arazorik larriena?

K.- Lanik eza. Ikasketak amaitzen eta urtenbide iluna, horixe da gure arazo larriena.

A.- Beste problemarik?



Karlos saskibaloia talde baten



Karlos Larreako katekisten taldean

K.- Helburu handirik eza. Askoren ametsa gaupasak ta bizitzari koipea ataratzea baino ez da.

A.- Ze politika?

K.- Ez da egiten benetako politikarik. Hemengo politika halan edo holan botoak irabaztea baino ez da.

A.- Historiak emon dauan pertsonai inportanteena?

K.- Nazareteko Jesus.

A.- Higuingarriena?

K.- Stalin eta Hitler.

A.- Gizadiko aurrerapenik nagusiena?

K.- Kristautasuna.

A.- Zure bizitzako momenturik politena?

K.- Neure Sendotzako eguna.

A.- Tristeena?

K.- Neure aitaren heriotza.

A.- Literaturazko liburu bat?

K.- Stendahlen "Rojo y negro".

A.- Pintore bat?

K.- Velazquez eta Van Gogh

A.- Eskultore bat?

K.- Miguel Angel.

A.- Musiko bat?

K.- Beethoven.

A.- Pelikula bat?

K.- "Padrino"ren hirurak.

A.- Ze kolore?

K.- Ez jataz batere kolore biziak atsegin.

A.- Ze hobby?

K.- Irakurri eta kirolak.

A.- Badozu andragairik?

K.- Ez.

A.- Zer da pertsonengan gehien baloratzen dozuna?

K.- Bihotz ona eta eguneroko lanetan iraunkor izatea.

A.- Ze eronago zenduke urrutiko isla batera?

K.- Biblia.

A.- Zeure bizitzan hartutako aholkurik onena?

K.- "Ez egin gaur bihar damutu beharra izango dozun gauzarik" aitak sarritan inostana.

A.- Xetan zoaz gastetan txapelketa honetan irabazitako diruak?

K.- Atletiren karneta ordaindu eta beste dana preminan dagozaneî emon.

A.- Zer nahi dozu, Atleti bertokoeekin bigarren mailan ala atzeritarrekin txapeldun?

K.- Atzeritarrekin txapeldun!

A.- San Mames, Metroa ala Guggenheim?

K.- Hirurak, Bilboko ikur eta harrotasun bihurtu dira-ta.

Mila esker, Karlos. Bejondeizula Teresa gaztearen izarrak. Agu.

Andoni Olea